

## **DIRU-SARRERAK**

Aktiboen salmenta da gure enpresaren diru-sarrera, hain zuzen ere, ingurumenarekin errespetutsuak diren poltsak edota edalontziak dira gure aktiboak. Gainera, ordainketa bakarrek diru-sarrerak dira, bezeroei produktua eskaini eta berehala ordainduko digute.

STARTINNOVA-n jarraitutako prozesuari esker informazio baliagarri ugari lortu dugu gure produktuetako prezioak ezartzeko. STARINNOVA-n ikasitako sailkapena kontuan hartuz, gure produktuetako prezioak mota honetakoak izango dira; prezio finkoak izango dira, hau da, aldagai estatikoen arabera aurredefinituta egongo dira. Prezio finkoak izanda, zerrendako prezioak izango dira, hau da, poltsa edo edalontzi bakoitzak prezio finko bat izango du; bestalde, ezaugarrien arabera prezioa izango dute gure produktuek, produktuaren kalitatearen arabera prezioa, hau da, poltsak hidrodisolbagarriak ez dute, oihalezko poltsak bezalako prezioa izango, bigarrenak garestiagoak izango dira, lehenengoak eskuratzeko kostuak askoz txikiagoak direlako. Azkenik, gure bezeroen arabera prezioak ezberdinak izango dira, beste era batean esanda, bolumenaren arabera prezioa izango dute gure produktuak, prezioa aldatu egiten da, erositako kopuruaren arabera, gero eta gehiago erosi, produktua orduan eta merkeagoa ateratzen da. Ez da unitate bakoitzeko prezioa berdina izango enpresentzat eta partikularrentzat; enpresek, unitate kopuru handiagoa eskatuko dutenez, unitateko prezioa txikiagoa izango da haientzat eta guretzat (eskala ekonomia: ekoizpena handitzean, batezbesteko kostuak jaitsi egiten dira).

Gure proiektuak, bere jarduera hasten duten proiektu guztiek bezala hasierako inbertsio bat behar izango du. Hasteko, gure enpresak beharko duen hasierako ekarpena zehaztuko dugu eta geroago, diru kopuru hori lortzeko kontuan hartuko ditugun hainbat finantzaketa iturriak azalduko ditugu.

### **HASIERAKO INBERTSIOA:**

**Tabla 1.2.1. Capital semilla para proyectos de negocio nacientes en España en 2017**

<b>Media</b>	93.552,14 €
<b>Mediana</b>	20.000,00 €
<b>Moda</b>	20.000,00 €

Global Entrepreneurship Monitor: GEM España 2017-2018 txostenaren arabera, ekintzaileek bere proiektuetarako behar izandako batezbesteko kapitala 93.552 eurokoa da, baina aipa beharrekoa da batezbesteko horrekin konplitzen dutenak gutxi dira, eta txosteneko mediana kontuan hartzen badugu, ekintzaile sortu berrien %50-ek, gehienez 20.000 euro behar izan zituzten beren negozioak aurrera ateratzeko, eta modaren arabera, hasierako inbertsio ohikoena 20.000 eurokoa izan zen ere. Baina, Global Entrepreneurship Monitor: GEM Comunidad Autónoma del País Vasco 2017-2018 txostenari erreparatuz, EAEn jarduera ekintzaileren bat abian jartzen duten bi pertsonatik batek jarduera abian jartzeko 23.500 euro baino gutxiagoko kapital beharrak ditu. Zenbateko hori Espainiako batezbestekoa baino handiagoa da, baita 2016ko datua baino handiagoa ere (15.000 euro).

Gure hasierako inbertsioa kalkulatu ahal izateko, hainbat kostu kontuan hartu behar ditugu, geroago “Kostuen egituran” zehazki azalduko ditugunak. Gure enpresarako, kostu nagusiak zentzu zabalean, gure diseinuak txertatzeko erabiliko dugun makineriari, denda hornitzeko altzariei, lokalen alokairua, lehenengo produktuen eskariari, lehenengo marketin eta publizitate kanpainari eta beste hainbat gauzei dagokio. Gure beharrak kontuan izanda, hasierako inbertsioa gure proiektua aurrera eramateko EAEn egiten den batezbesteko hasierako inbertsioak baino handiagoa izango lirateke.

### **HASIERAKO INBERTSIOA LORTZEKO BALIABIDEAK:**

Hasierako inbertsioa burutzeko behar dugun diru kantitatea lortzeko, hainbat baliabide ditugu eskura. Lehenik, gure enpresa osatzen duten bazkideen ekarpenak kontuan hartu ditugu, baina ez dugu behar dugun dirua ideia aurrera eramateko. Ondorioz, beste finantzazio bideak esploratzea aukeratu dugu:

### **Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Berrikuntza Egitasmoei Laguntzeko Programa:**



Bizkaiko Foru Aldunditik, gazteriaren partaidetza aktiboa eta gazteek elkarrekin parte hartzea sustatzera zuzendutako gizarte berrikuntza egitasmoei laguntzeko programa martxan jarri dute. Aurten, programak 150.000 euroko aurrekontua du, eta kopuru hori

15 eta 29 urte arteko gazteei zuzenduta. Kontuan hartu behar dugu, diru-laguntza hau lortzeko, eskabideak aurkezteko epe muga 2019ko urtarrilaren 25an amaituko dela.

### **Bizkaia Seed Capital Mikro:**

Bizkaiko Foru Aldundia beste finantziario-lerro bat sortu du enpresa berrientzat: 25.000 eurora arteko kreditua ematen du, abalik gabe.



- Finantziarioaren gehieneko ehuneko zenbatetsia proiektuaren guztirako kostuaren % 95-a izango da, gehienez, 25.000 euro enpresa bakoitzerako.
- Finantzatu daitezkeen kontzeptuak: aktibo finkoetako inbertsioak, lizentziak eskuratzea eta negozioa abian jartzeak sortutako beste gastu batzuk barne, eta zirkulatuzailearen % jakin bat, zeina enpresaren jardueraren menpe egongo den.
- Finantziarioaren kostua: urteko interes-tasa % 5-ekoa izango da.

Webgunea: <http://www.seedcapitalbizkaiamikro.org/>

### **Ekintzaile-Barnekintzaile Maileguak (Spri-Eusko Jaurlaritzak):**



Eusko Jaurlaritzak, SPRIk eta Luzarok Hitzarmen bat sinatu dute Ekintzaile-Barnekintzaile programaren babesean sortu berri diren enpresa txiki eta ertainen aktiboko inbertsioak epe luzera finantzatzeko.

Webgunea: <http://www.luzaro.es/eu/prestamos-ekintzaile-barnekintzaile/>

### **ENISA Gazte Ekintzaileentzako Finantzaketa:**



Gazteek sortutako osaketa berriko ETE-ei (eta startup-ei) zuzenduta enpresa-proiektuak bere hasierako fasean behar dituen inbertsioei ekiteko.

40 urte baino gutxiagoko gazte ekintzaileak, ekintzailetza berritzaileko proiektuekin izango dira onuradunak.

Webgunea: <https://www.enisa.es/es/financia-tu-empresa/lineas-de-financiacion/d/jovenes-emprendedores>

Gure proiektuaren hasierako inbertsioa lortzeko, mikromezenasgo edo crowdfunding erreminta erabili dezakegu. Estatu mailan <https://www.goteo.org/> da crowdfunding plataforma ezagunena. Plataforma honen bidez, hainbat pertsonen ekarpen txiki batekin gure proiektua aurrera eramateko dirua biltzea lortuko genuke, ordainketa moduan, sari bat eskainiko genioke lagundu duten pertsoneri, gure enpresaren kasuan, diseinu pertsonal batekin apaindutako oialezko poltsa bat izango zen.

Bestalde, ez dugu banku bati eskatutako mailegu baten aukera batere ukatu, baina bestelako aukerak begiratu ditugu, erabaki onena aukeratzeko.